

21.^{æek} korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra GARESTIK GASTEIZA



21.^{æek} korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA



Garestik Gasteiza B2 C1

Hil gutxi barru, milaka eta milaka euskaltzalek eskuz esku eramango dute KORRIKAREN lekukoa, berriro ere, Euskal Herri osoan zehar. Edizio honetan, euskararen aldeko ekimena Garestik abiatuko da, apirilaren 4an, eta, hamaika egun geroago, Gasteizen izango du amaiera jendetsua. Batetik besterako bidean, zazpi herrialdeetako herri gehienetatik igaroko da lasterketa erraldoia.

02 | 21. KORRIKA



GARES

Perdoneko mendizerrako hegoadean, Iruñetik 24 kilometrora, Gares Donejakue bideko erromesen elkargune garrantzitsua izan da, XII. mendetik aurrera. Orreagatik eta Somportetik datozen erromesak bertan elkartzen dira, Argaren gaineko zubi erromatarra zeharkatu ondoren, Santiagoranzko bideari jarraitzeko.

Aurten, baina, oso bestelako pegrinazioak emango ditu Garesen aurreneko urratsak, Euskal Herri osoa zeharkatu duen euskaltzaleen peregrinazio erraldoiak: KORRIKA.

Bardeatik Pirinioetara

Nafarroa Garaia kontrasteen lurraldea da. Ordu gutxian, basamortutik baso zarbatsuenetara edo gailur elurtuetara igaro daiteke, eta 21. KORRIKAK pasaia horiek guztiak ibiliko ditu, lehenengo egunetan. Lizarraldea eta San Adrian zeharkatu ondoren, 4tik 5erako gaua Erriberako eremu lehorretan emango dute korrikalariak; bertatik, Tafallaldean eta Zangozaldean barna, Pirinioetaraino hurbilduko dira. Zaraitzun eta Aezkoan, KORRIKAK elurra izan du bidelagun behin baino gehiagotan, baina horrek ez du inoiz lasterketa geldiarazi.

Larunbat goizean, apirilaren 6an, Pirinioiak utzi, eta, Irati ibaiaren ondotik, Aoizera abiatuko da lasterketa; eguerdi aldera, Iruñera iritsiko da. Gaueko bederatziak aldera, Nafarroa Garaiko hiriburutik Pirinioetarantz abiatuko da berriro, Orreagarantz, Santiagorako erromesen kontrako bidea eginez.

Ibañeta mendatea gaindituta -1.053 metrora, edizio honetako lekurik garaiena izango da-, Iparraldean izango dira korrikalariak.

Iparraldean ere lasterrez

Goizaldeko hirurak aldera, Donibane Garazira helduko da KORRIKA. Ondoren, Oskitze mendatetik, Zuberoara joango da, eta, egunsentiaz batera, Maulera iritsiko da. Egun horretan, Iparralde osoa zeharkatuko du, ekialdetik mendebaldera, eta, arratsaldeko seietan, Baionan sartuko da. Kilometro gutxi batzuk mendebalderago, Angelun, Kantauri itsasoa izango du zain. Kostaldetik urrundu gabe, hegoalderantz abiatu, eta, Bidasoa gurutzatuta, Iruen sartuko da.

7tik 8rako gauean, Hegoaldean ibiliko dira berriro korrikalariak: Iruen eta Hondarribian, hasieran, eta Nafarroako Bortzirietan gero. Goizaldeko seiak aldera, Iparraldera itzuliko da, Lizarieta mendatetik. Astelehen goizean, azken kilometroak egingo ditu lasterketak Iparraldeko lurretan; Sara, Ezpeleta eta Ainhua bisitatuko ditu, eta, Dantxarinetik igaro ondoren, Nafarroa Garaian izango da berriro.

Mahastien artean

Apirilaren 9an, Baztan zeharkatu ondoren, Ultzama, Basaburua eta Larrauneko basoetan murgilduko da KORRIKA, Sakanara iritsi aurretik. Handik, Aralar eta Urbasa mendilerroen babesean, Arabarantz abiatuko da. Goizaldeko 6etan, Lautadan sartuko dira korrikalariak, eta, Kanpezun gora, Errioxaraino joango dira. Gauera arte

APIRILAK 4

GARES 17:00
Lizarra 19:25
Lodosa 23:26

APIRILAK 5

Tutera 08:35
Tafalla 17:05
Zangoza 22:30

APIRILAK 6

Jaurrieta 05:50
Iruñea 14:47
Orreaga 23:45

APIRILAK 7

D. Garazi 02:47
Maule 07:10
Baiona 18:05

APIRILAK 8

Irun 00:45
Elizondo 13:22
Lekunberri 19:23

APIRILAK 9

Altsasu 04:45
Agurain 07:53
Bastida 19:15

APIRILAK 10

Laudio 08:17
Galdakao 12:12
Algorta 21:39

APIRILAK 11

Barakaldo 00:31
Bilbo 11:46
Gernika 20:11

APIRILAK 12


Lekeitio 01:32
Zarautz 13:00
Donostia 16:28

APIRILAK 13

Hernani 01:24
Tolosa 04:15
Durango 18:55

APIRILAK 14

Otxandio 01:00
Arrasate 03:52
GASTEIZ 12:30



ibiliko dira mahastien artean. Azkenik, Urizaharra mendatea gurutzatu, eta, Trebiñutik eta Añanatik igarota, Gorbaiaren magalera hurbilduko dira. Ordu gutxiren buruan, Urduñan, Bizkaiko hiruburu zaharrean, sartuko dira, Barrerilla mendatean behera.

Itsasoari begira

Apirilaren 10eko goizaldean, Urduñatik Iparralderantz abiatuko da KORRIKA, Kantauri itsasoaren bila berriro ere. Bizkaian sartu aurretik, baina, Aiaraldeko herrietan barna ibiliko da. Korrikalariak Hego Uribetik sartuko dira Bizkaian; ondoren, Txorierri eta Uribe Kosta bisitatuko dituzte, eta, Bizkaiko Zubi enblematikotik, Ezkerraldera joango dira.

10etik 11rako gaua Bizkaiko mendealdean emango du KORRIKAK, Meatzaldean eta Enkarterrin, hain zuzen, eta, eguerdi aldera, Bilbora iritsiko da. Bizkaiko hiriburuan kalez kale ibili ondoren, itsasorantz abiatu, eta Busturi-aldea eta Lea-Artibai zeharkatuko ditu.

12an, egunsentian, Gipuzkoan sartuko da lasterketa. Debabarrena, Eibarraldea, Urola, Urola Kosta eta Lasarte, zeharkatu ondoren, hurrenez hurren, Donostiara iritsi eta bertan ibiliko da, gauera arte. Donostiatik Oarsoaldera joangoa da, Pasaian itsasadarra traineruz gurutzatuko du, eta, itsasoari agur esanez, Gasteizerako bidean jarriko da.

Gasteizerantz

13ko goizaldean, Hernanialdera heltzen denean, KORRIKA azken asteburuan sartuko da. Helmugara iristeko, 36 ordu baino ez dira faltako. Gasteizera ailegatu aurretik, ordea, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat eskualdetan ibiliko



dira korrikalariak. Lehenengo herrialdean, Tolosaldea, Goierri, Urola Garaia, Debagoiena eta Eibarraldea ibiliko ditu; bigarrenean, Durangaldea eta Arratia. Azkenik, Anboto inguruko mendi ikusgarriak inguratuta, Otxandiotik Bizkaia utzi, eta Debagoienara iritsiko da. Han, Gasteizerako bidea hartuko dute korrikalariak, lasterketari merezi duen amaiera emateko asmoz.

KORRIKAreⁿ APPa

Nahi duenak KORRIKAreⁿ jarraipena egin ahal izateko, AEK-k APP bat jarriko du martxan datozen asteotan. Aplikazio horren bidez, hainbat informazio eskuratu ahal izango da: ibilbide osoaren mapa, lasterketa une oro non dagoen, edozein lekutara noiz helduko den...

Ibilbideari buruzko informazioaz gain, aplikazioan KORRIKA kulturalaren agenda ezagutu ahal izango dugu, eta aplikazioan bertan zabalduko den lehiaketan parte hartu ahal izango dugu.

GASTEIZ

Gasteiz hiri garrantzitsua izan da KORRIKAreⁿ historian: orain arte, lastereketaren bi edizio amaitu dira bertan, eta beste bi hasi. Aurtengoa 8:30ak aldera sartuko da Arabako hiruburuan, Duranatik, eta eguerdira arte ibiliko da bertan, auzoz auzo eta kalez kale.

12:30ean, KORRIKAK milaka eta milaka euskaltzale bilduko ditu Andre Maria Zuriaren plazan. Bertan, Euskal Herri osoan barrena lekukoaren barruan gorderik ibilitako mezua irakurri ondoren, lasterketa amaitu eta azken eguneko jai handia hasiko da.



BERRIDATZI TESTUAN AZPIMARRATUTAKO ESALDIAK ONDOKO EGITURAK ERABILIZ.

1. _____-en buruan _____.
2. _____-z geroztik.
3. _____-ari jarraiki _____.
4. Behin _____-ta _____.
5. _____-ari ekingo _____.
6. _____-takoan _____.
7. _____ ez ezik _____ ere _____.
8. _____ horrenbeste _____.

HAMAR BAIETZ

ZENBAT DAKIZU KORRIKARI ETA EUSKAL HERRIARI BURUZ? IKUSTAGUN!

1

Zein da egia?

- A. KORRIKAK ez ditu zeharkatu Euskal Herriko zazpi lurraldeak edizio guztietan.
- B. KORRIKAK Euskal Herriatik kanpo ere egin izan ditu zenbait kilometro.
- C. KORRIKAK beti egin ditu 2.000 kilometrotik gora.

2

21. KORRIKA Garesen hasi eta Gasteizen amaituko da, beraz, ...

- A. ... lasterketa hasi baino baxuago amaituko da.
- B. ... lasterketa hasi baino altuago amaituko da.
- C. ... antzeko garaieran hasi eta amaituko da.

3

Non dago Gares?

- A. Iruñetik 24 km-ra.
- B. Iruñetik 41 km-ra.
- C. Iruñetik 73 km-ra.

4

Pertsona famatu hauetako bat gasteiztarra da. Badakizu nor?

- A. Martin Fiz kirolaria.
- B. Jon Artetxe idazlea.
- C. Mikel Urdangarin abeslaria.

5

Erriberatik pasatzean, zein elikagai tipiko jan ahal izango dute korrikariek?

- A. Txokolatea.
- B. Babarrunak.
- C. Zainzuriak.

6

Pertsonaia ezagun hauetako bat ez da gasteiztarra. Zein?

- A. Txillardegi euskal idazle, politikari eta pentsalaria.
- B. Juanito Oiarzabal mendizalea.
- C. Toti Martinez de Lezea idazle eta itzultzailea.

7

Zein ibai zeharkatuko dute korrikariek Gasteiza iristean?

- A. Ebro.
- B. Arga.
- C. Zadorra.

8

Zein da zuzena? 2016an, Gasteizko biztanleen...

- A. ... % 8,7 euskaldunak ziren, % 6,2 euskaldun hartzaileak eta % 85,1 erdaldunak.
- B. ... % 17,9 euskaldunak ziren, % 18,4 euskaldun hartzaileak eta % 63,8 erdaldunak.
- C. ... % 29,8 euskaldunak ziren, % 14,3 euskaldun hartzaileak eta % 55,9 erdaldunak.

9

Zenbat biztanle ditu Gasteizek? 2018ko urtarileko erroldaren arabera, ...

- A. ... 203.289.
- B. ... 250.000 inguru.
- C. ... 290.000tik baino gehiago.

10

Zein jai ospatuko dute gasteiztarrek KORRIKAREN amaierako festatik bi astera?

- A. Andre Maria Zuriaren jaiak.
- B. Sanprudentzioak.
- C. Blusen eta Nesken Eguna.

ARIKETA ETA DENBORA-PASEN ERANTZUNAK:
[http://www.korrika.eus/euskaltegi-
etarako-unitate-didaktikoak.html](http://www.korrika.eus/euskaltegi-
etarako-unitate-didaktikoak.html)

